

IL AZALPEN PROBA • <i>Atertu arte itxaron</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasarteak (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu*ri* egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Gustave Flaubert. Gustavo Adolfo Bécquer. Nire beltza, nire maiordomoa, nire jabea. Nire gidaria. Batez ere nire gidaria.

Demagun kotxe berria probatu nahi duzula. *Errodatu*, esaten duzu. Demagun kotxe berria errodatu nahi duzula. Demagun oporraldi lasaia behar duzula, ardo ona eta itsasoa. Plazer txikiak, plazer motelak. Errepide sekundarioak. Errepide sekundarioak beti, ados? Sekulako urtea izan duzu; azkena, astebeteko eskapada Errepublika Dominikarrera, litigazio internazionaleko masterrean klaseak ematera. Gogorra da gero zure bizimodua. Ulertu egin behar dut.

Tira ba. Demagun behingoz eta fundamentuz nire herria ezagutu nahi duzula, nire lurraldea, nire sehaska. Bada garaia, ezta? Aski da, nazkatuta naukate asteburuko presazko bisitek, familia konpromisoek, ezkontzek eta hiletek. Lurralde horretan murgildu nahi duzu, blaitu. Aberria. Abaroa. Abisinia. Nire galbidea, hitz batean. Baina ez, hori oraindik ez dakizu. Jakingo duzu. Horretan datza bidaia, auto-ezagutza eta abar.

Gustavo, zurekin korritu dut Messarako lautada, baina sekula ez Arabako lautada. Mojaveko desertuan sartu ginen aire girotua izorratua zuen auto alokatu batekin, baina ez gara inoiz ausartu Bardean sartzera. Ferryz zeharkatu dugu Gibraltarko itsasartea, bisigua jan dugu Bosforotik nabigatzen zuen itsasontzian, baina ez dugu inongo barkutatik esploratu Zumaiako *fiysch* ospetsua. Salengo museo barregarri batean sartu ginen, gaizki mozorrotutako aktorez betea, baita azkar atera ere, baina ez gara inoiz kezkatu Zugarramurdiko sorginez eta haien akelarreez.

IL AZALPEN PROBA • <i>Atertu arte itxaron</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasarteak (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu*ri* egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldeak zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Musika Mundutik nator ni, Mono-Maniaren erreinu endogamiko eta auto-erreferentzial horretatik, zeinetan musika den hizketa-gai, jardun, elikagai, grina, obsesio eta arnasa bakarra. Eta hara non egin dudan topo Gustavitorekin, zeinak zaletasunak mantendu, pilatu eta guztiak bolada berean praktikatzeko gaitasuna daukan, nik Polimania Harmonikoa deitzen dudan fenomeno txit ezohiko bati jarraiki.

Eta zaletasun berri hau eraikitzen irakatsi didazu. Jazz musika. Ez da biok batera mantentzen dugun espazio bat, multzoen teorian *ebakidura* esaten zaiona, baizik eta geure zirkulutik kanpo eta biok elkarrekin eraiki dugun espazio isolatu eta hermetikoki itxia.

Multzoen teorian *matrimonioa* deitzen dena.

Hala ere, argi dugu norberaren bihotzaren azken kantoian, geure jatorrizko izaerak eusten diola. Zuk pop-zale amorratua izaten jarraitzen duzula, nik musika klasikoaren nagusitasuna edozein zirkunstantziapean aldarrikatzen jarraituko dudan moduan. Nik pop musikari burutazio infantila deritzodala (kasurik onenean), zuk musika klasikoa marmolezko monumentu anpulostatzat duzun moduan. Horregatik, zeure hiletetarako aukeratua duzun abestia John Lennonen hilondoko *Watching the Wheels* da. Nik, berriz, norbaitek Bachen San Mateoren Pasioak duen ariarik mingarriena abestu dezala espero dut. *Erbarme dich, mein Gott*. Hori ez dugu testamentuetatik ezabatuko. Eutsi egingo diogu. Eta, geure azken egunera arte elkar maitatzen jarraitzen badugu ere, ez ditugu, inolaz ere, Esperanza Spaldingen kontrabaxua, Brad Mehldauren pianoa edo Lorraine Featherren *scat* eta *vocalese* akrobatikoak azken festa horretara gonbidatuko. Azken arnasaren momentuan, hazira itzuliko gara.

Baina momentuz bizirik gaude eta jazzak daukagu.

IL AZALPEN PROBA • <i>Atertu arte itxaron</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasarte (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Inoiz ez dute halako iskanbila antolatzen suizida batengatik —esan zidan norbaitek aurpegi unatuaz eskailera mekanikoak hartu genituenean.

Norbait hori zu zinen.

Billete-makinaren alboko kioskoan hasi ginen gertatutakoaz ohartzen, periodiko-saltzaileak piztuta zuen irrati bati esker. Hogei hildako gutxienez, esan zuen norbaitek. Atochan. Bat-batean, hamahiru edo hamalau pertsona bilduta geunden irrati horren inguruan, bidaide frustratuak guztiak ere. Eta berehala beste leku batzuk: Santa Eugenia hamabi gorpu. El Pozo del Tío Raimundon ere beste leherketa bat.

Andenetako guardiak igo ziren orduan, haietako bat aterki beltza oraindik eskuan, geltokia erabat hustu eta ixteko aginduarekin. Denok atera behar genuen, periodiko saltzailea barne. Irratia itzali zuen gizonak, bisera jantzi. Bozgorailuetatik ere agindu bera. Irteerara jotzeko mesedez, ahalik eta azkarren. Inork ez zuen korrikarik egin, baina denok espero genuen leherketa bat gure oinen azpian. Nuevos Ministeriosen leherketa berri bat. Berrogeita zazpi hildako gutxienez. Posible zen. Dena zen posible.

Kalean anbulantzien hotsa entzuten hasi ginen, eta lurrazalera atera berriak ziren bidaiari gehien telefonoak hots egiten hasi ziren.

Orduan sentitu zintudan nire alboan berriz ere. Eta zure aurpegian erreparatu nuen lehenengo aldiz.

—Ahaztu egin dut telefonoa etxean, zurea erabil dezaket? —esan zenidan.

—Bateriarik gabe daukat.

IL AZALPEN PROBA • <i>Atertu arte itxaron</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasarte (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenien bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Bikote guztietan dago arazoak sortzen dituen bat eta arazoak konpontzen dituen beste bat, arazo-egilea eta arazo-konpontzailea, esaten zuen Madrilgo gure (zure) lagun batek, bestela bikoteak ez du aurrera egiten, baina zuenean ematen du biok zaretela arazo-konpontzaileak, arraioa, normala iruditzen al zaizue konkordia hau? Pentsatu apur batean, erantzun zenion zuk, arazoak konpontzen iaioak bagara, lehendik arazoak sortzen ditugulako izango da, ezta?

Ez zenuen inor konbentzitu: geure ezagunen begietara, matrimonio perfektuaren klabeak gordetzen ditugu.

Hor.

Nonbaiten.

Polita da imajinatzea horrelako zerbait existitu daitekeela.

Buxadura ezarian desegin eta Algortara ailegatzen garen bitartean, ni Avilara noa. Maiatzeko egun hotz samar horretara.

Hamalau hilabete dira elkar ezagutzen dugula, eta hala ere ezkontzera goaz. Bai, ezkontzera. Badakit denbora gutxi pasatu dela, eta ulertuko dut ezetz esaten badidazu, baina ama hil aurretik egin nahiko nuke hau. Zure hitzak Cava Bajako taberna euskaldun batean (pintxo eta patxaran exotikoak), elkarrekin pasatzen genuen lehenengo Urteberria ospatzen. Ondo dakit gainera hemendik bi, lau urtera berdin sentituko naizela. Zer diozu?

Avilan egingo dugu, beraz. Zure amak ezin du bidaiatu. Eta eliza batean egingo dugu. Bataiatu eta lehen jaunartzea egingo ditut ezkontzaren egun berean. Amari azaldu beharko *diot* zure amagatik egiten dudala. Baina elizan? Eta hain gazte? Horretarako joan zara Madrilera, gizon on bat harrapatzera?

IL AZALPEN PROBA • <i>Atertu arte itxaron</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasarte (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

When it gan weep.

Udazkenean bete-betea sartuta, Gabonak gertu ziren eta *A Ceremony of Carols-en* gure lehenengo emanaldia ere bai. Gure hirugarren enkontru pribatua izango zen hura, azkena. Ez zegoen beste ezertarako astirik. Hobe nuen soloa orduko hartan biribiltzen banuen. Ez dut ezkutatuko nire jantziak eta tankera orokorra kontuz aukeratuak nituela, aurreko entseguetarako baino apur bat gehiago luzatua nintzela ispilu aurrean. Beltzez nindoan, garai hartan gustatzen zitzaidan moduan, baina gonarekin, eta ia belauneraino ailegatzen zitzaizkidan botak neramatzan, hiru egunez etenik gabe botatzen ari zuen euriari aurre egiteko modukoak. Azken buelta bat eman genion nire soloari. Bi minutu baino gutxiagoko kontua zen, melodia simple baina hunkigarria zinez. Ez nuen bikain egin. Aurreko entseguarekin konparatuta, hobekuntza nabarmenik ez. Asier igartzen hasia zen ezin nuela askoz hobeto egin, agortuta nengoela, eta ni ere bai. Kantu bakarlarria ikasten hasia nintzen kontserbatorioan kurtso hartan, pianoa baztertuta, eta han ere, indar handiko sarrera baten ostean, irakasleen entusiasmoa hozten hasia zela nabaritzen nuen. Hitz egiteko zuen moduagatik, dezepzio apur bat nabaritzen nuen Asierrengan, nekea akaso. Agian horregatik begiratu nion begiratu nion moduan, entsegua amaitutzat eman genuenean.